

FUNTSEZKO ELKARTEAK PATINETE ETA BIZIKLETEN ALOKAIRUA

Mugitzeko baliabiderik ez duen bezeroentzako edo gutxiago kutsatu nahi duen pertsonarentzako. Horretarako gure patineteak erabiliko dituzte, leku askotara mugitzeko eta bidai luzeak egiteko aukera izango dutelako eta horrez gain, ez dute ezer kutsatuko.



Baliabideak lortzeko, Xiaomi deituriko enpresa teknologiko batekin lan egingo dugu patineteak lortzeko, kalitate-prezio ona daukatelako, 45km-ko autonomia dute, ez dute asko pisatzen eta 25km/h-ra heldu daiteke. Beste aldetik, bizikleta elektrikoak lortzeko, “Cityboard E- Tui” izeneko



bizikleta elektrikoak erabiliko ditugu gure bezeroentzat, 100km egiteko gaitasuna dute. Azkenik, AutoSolar eguzki panel enpresarekin egingo dugu lan, bizikletak eta patineteak eguzki plakekin kargatu ahal izateko. Plaka hauek jarri ahal izateko ibilgaluak jarri nahi ditugun herrietan lehenengo udaletxeekin kontratu bat sinatu beharko dugu, panelak jartzeko baimenarekin. Hau da, erosle eta hornitzaileen arteko harremanak eukiko dugu, materialen eskuragarritasuna bermatzeko.

Beste aldetik, gure kabuz erosiko ditugu bateriak, ditugun aurrezkiekin, kalean bizikleta eta patineteak kargatzeko.

Enpresaren barruan, hasieran hiru taldekide izango garenez, rolak hiruren artean banatuko ditugu. Ederrek, app-a egin eta kontrolatu egingo du; Ekainek, enpresaren diruaren kontuak eramango ditu; eta azkenik, Paulek, bezeroei enpresari buruzko informazioa heltzeaz arduratuko da eta arazoren bat egotekotan bera bezeroeki hitz egingo du. App-ren diseinua guztien artean edostuko dugu, honen bidez bezeroek ordaindu eta noiz eta zenbat denbora behar duten bizikleta edo patinetea zehaztu ahal izango dute.